

Lurrak emana
lurrari itzuli



KONPOSTGUNE
KOMUNITARIOAK
ZALDIBIAN



ZALDIBIAKO
UDALA

Ahalik eta hondakin
gutxien sortzea
denon eginbeharra da.

Ezin dugu ahaztu
sortu ditugunak
berrerabiltzea eta birziklatzea
denon ardura dela.

Zaldibian beste pauso bat
ematera goaz,
gure hondakin organikoak
bertan bihurtu nahi ditugu
lurrarentzat ongari.

Ekonomia zirkularraren
printzipioei jarraituz, gaur
egun gastu dena baliabide
bihurtu nahi dugu.

Auzo konpostguneak
izango dira tresna, eta
herritarron konpromisoa
giltzarri.



ZER DA AUZOETAKO KONPOSTGUNEA edo KONPOSTGUNE KOMUNITARIOA?

Etxeko hondakin organikoak kudeatzeko gunea da. Zehazki, materia organikoa edo biohondakinak tokian bertan kudeatu eta konpost bihurtzeko gunea.

NORK KUDEATUKO DU?

Herritarrak bere etxeko organikoa tokian utzi beharko du, eta Zaldibiako udal langileak arduratuko dira hortik aurrerakoaz; organikoa nahastu, prozesua zaindu eta behar bezala gauzatzen dela bermatuko dute.

Modu honetan, kalitatezko konposta lortzeaz gain, sor litezkeen arazoak ekidingo dira.

KONPOSTA ETXEAN EGITEN DUTENAK ZER?

Bejondeizuela! eta jarraitu holaxe. Konposta etxean egiteagatik ere hobaria jasoko duzue. Zalantzak argitzeko edo laguntza behar izanez gero, jarri harremanetan.



NOLA FUNTZIONATUKO DU?

- 1.- Udaletxean eskaera egin.
 - 2.- Giltza elektronikoa bat emango zaizu, eta organikoa non eta nola utzi zehaztuko zaizu.
 - 3.- Une horretatik aurrera, kubo marroia kalera atera ordez, hondakin organikoa konpostgunera eramane behar duzu.
- Zuk nahi duzun egun eta orduetan. Organikoa utzi ondoren, materia lehorra botatzea da baldintza bakarra. (Bertan eskuragarri)
- 4.- Konposta egiteagatik, hobaria jasoko duzu hondakin tasan.

ZALDIBIAKO KONPOSTGUNE KOMUNITARIOA



eguneko 24 orduetan
asteko 7 egunetan
urteko 365 egunetan



Zure etxetik gertu,
eta kuboak garbitzeko
iturria eskura



Sarraila elektronikoko
bidez zabaltzen den
giltzarrapoa



Kantitate
mugarik gabe



Hobaria jasoko duzu
etxeko hondakin tasan



ESKATU INFORMAZIOA



943 88 03 57



konposta@zaldibia.eus



zaldibia.eus/qr/konposta

EMAN IZENA UDALEAN



ZALDIBIAKO UDALA
Santa Fe 18, 1. solairua
20247 ZALDIBIA



TRADUCCIÓN